



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua aurrera eramateko gure enpresaren funtsezko baliabideak honela sailkatu ditugu:

- **Baliabide fisikoak:** Lehenik eta behin ezinbestekoa da baliabide fisikoak izatea, esaterako **teknologia eta materiala** plakak egiteko, **garraiobidea** produktua merkaturatzeko. Horiek gure proiektua aurrera eramaten laguntzen gaituzte, alde batetik, teknologiarik gabe ezin izango genuke produktua osotasunean egin, eta bestetik, garraiobide bat beharrezkoa da gure produktua banatzeko.
- **Baliabide intelektualak:** Baliabide intelektualak proiektua aurrera eramateko ezinbestekoak dira. **Know How**, teknologiaren erabileraren ezagutza funtsezkoa da guretzat, eta metodologiaren erabilera ere. Ondoren, gure proiektuak ahalik eta arinen kargatzea eta iraunkorra izatea delako gure helburua. Etengabeko berrikuntza eta hobekuntza ezinbestekoa da gure sektorean.
- **Giza baliabideak:** Hiru sortaileek **motibazioa** izatea funtsezkoa da proiektua aurrera eramateko. Gure **ezagutzak** eta **abileziak** ere garrantzitsuak izango dira. Egia esanda **esperiantzia** aldetik berriak gara, gure lehen proiektua da, baina hori ez da zailtasuna izango gure proiektua aurrera eramanez ahal izateko. Kontaktuan egongo garelako erakunde desberdinekin laguntzak jasotzeko, hau da, **aliantzak** beharrezkoak izango dira guretzako.
- **Finantza-baliabideak:** Hasieran eskatu dugun **mailegua** ezinbestekoa izango da guretzako, diru horrekin hasieran behar ditugun materialak eskuratuko ditugulako produktuaren ekoizpenarekin hasteko.